

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea

Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio-jarduerak egiteagatik tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeko udalbatzak 2024ko urriaren 30an hartutako hasierako erabakia jendarean jartzeko epea igarota, eta horretarako ezarritako epean ordenantzari inolako erreklamazioarik aurkeztu ez zaionez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, behin betiko bihurtu den erabakia osorik argitaratzen da, eta 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik harako 2 hilabeteko epearen barruan, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikuluekin bat etorriaz.

Hala ere, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez dezake.

Legutio, 2024ko abenduaren 23a

Alkatea

NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTÁZAR

ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIKO ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Legutioko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, tasak ezartzen eta eskatzen ditu udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik, bai eta subjektu pasiboei modu partikularrean dagozkien, eragiten edo mesede egiten dieten zerbitzu publikoak emateagatik edo udal-eskumeneko administrazio-jarduerak egiteagatik ere. Tasa horiek eranskinetan jasotzen dira, ordenantza honen baldintzetan, eta haien parte dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

1. Tasen zergapeko egitatea da udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, bai eta subjektu pasiboei bereziki dagozkien, eragiten dieten edo mesede egiten dieten zerbitzu publikoak ematea edo udalaren eskumeneko administrazio-jarduerak egitea ere.

2. Administrazio-jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragiten diola edo eragiten diola ulertuko da, baldin eta zuzenean edo zeharka subjektu pasiboak berak eragin badu, jarduera edo ez-egite horien ondorioz udalerrriak behartzen direnean jarduerak ofizioz egitera edo zerbitzuak ematera, segurtasun, osasungarritasun, herritarren hornidura edo hirigintza-arrazoiengatik, edo beste edozein arrazoiengatik.

3. Zerbitzuak ematearen ondoriozko tasek ez dute baztertzen zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik kontribuzio bereziak ordainaraztea.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Taseen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren entitateak eta testamentu-ahalordea egikaritzearen edo botere osoko gozamenaren zain dauden jaraunspenak ere:

- Udal jabari publikoa onura partikularrerako bereziki baliatu, erabili edo aprobetxatzea, Foru Arauaren 23.2 artikuluan aurreikusitako kasuren batean.
- Udalek ematen edo egiten dituzten udal-zerbitzu edo -jardueren onuradun izatea edo zerbitzu edo jarduera horien onuradun izatea, foru-arauren 23.3 artikuluan aurreikusitako kasuren batean.

2. Zergadunaren ordezkio izango dira:

- Etxebizitzan edo lokalen okupatzaileei mesede egiten dieten edo eragiten dieten zerbitzuengatik edo jarduerengatik ezarritako tasetan, higiezin horien jabeek; hala badagokio, onuradunen gaineko kuotak jasanarazi ahal izango dituzte.
- Lurzoruari eta hiri-antolamenduari buruzko araudian aurreikusitako hirigintza-lizentziak emateagatik ezarritako tasetan, eraikitzaileak eta obra-kontratatistak.

Suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak, aurriak prebenitzeko zerbitzuak, eraikinak eta eraispenak, salbamenduak eta, oro har, pertsonak eta ondasunak babesteko zerbitzuak emateagatik ezarritako tasetan, arriskua aseguratzen duten erakunde edo sozietateak ere barnean hartuta.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

- Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.
- Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbitzuengatik burutu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakioketena.

6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordainduko dituzte.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioen eran.

VI. Kuota

9. artikulua

Zerga kuota, eranskinean ezartzen denaren arabera, honako hau izango da: zerga oinarriari tarifa bat edo horretarako propio ezarritako kopuru bat aplikatuz ateratzen dena, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

- Tasak zergapeko egitatearen arabera sortuko dira:
 - Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean, edo zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean.
 - Jarduketa edo espedientea hasteko eskaera aurkezten denean, zeina ez baita egingo edo izapidetuko dagokion ordainketa egin gabe.
- Tasaren izaera materialak aldizkako sortzapena eskatzen duenean, tasa hori urte bakoitzeko urtarilaren lehen sortuko da, eta zergaldia urte naturala izango da, salbu eta erabilera pribatiboa, aprobetxamendu berezia edo zerbitzuaren edo jardueraren erabilera hasten edo amaitzen den kasuetan; kasu horietan, zergaldia inguruabar horretara egokituko da, kuotaren hainbanaketa eginda, eranskinean aplikatzekoak diren arauetan hala aurreikusita egonez gero.
- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzu publikoa, administrazio-jarduera edo jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxatzeko eskubidea ez bada ematen edo garatzen, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

VIII. Likidazioa eta diru sarrera

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinetako tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak auto likidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

IX. Tasen kudeaketa

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Lurralde Historikoaren zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta eranskinak 2025ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

I. ERANSKINA

1. Epigrafea: Zabor-bilketako zerbitzu publikoa emateagatiko tasa

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, ordenantza honen arabera udalak zaborrak biltzeko zerbitzuaren tasa ezarri eta eskatuko du. Ezarri beharreko tarifak eta tarifa horiek ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

Zerga gaia

3. artikulua

Tasaren zerga gaia da etxeetako zaborra eta hiri hondakin solidoak biltzea, bai eta ostatu eta lokal eta establezimenduetakoak ere, non jarduera industrialak, merkataritzakoak, profesionalak, artistikoak eta zerbitzuetakoak egiten diren, nahiz bilketa zuzenean udalak kudeatuta egin, nahiz partzuergo edo bestelako kudeaketa bideren batetik.

Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak dira Arabako lurralde historikoaren zergei buruzko foru arau orokorrak aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta entitateak, baldin eta zerbitzua eskaintzen den lekuetan, plazetan, kaleetan edo bide publikoetan dauden etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen badituzte, direla horietako jabe, direla horietako maizter edo gozamedun, prekarioan izan ala ez.

2. Zergadunaren ordezkari subjektu pasiboa etxebizitza edo lokalaren jabea izango da. Jabeak, hala dagokionean, ordaindutako kuotak jasanarazi ahal izango dizkie etxebizitza edo lokala erabiltzen dutenei, hau da, zerbitzuaren onuradunei.

Zerga oinarria

5. artikulua

Zerga oinarria osatzen dute zerbitzua gauzatzen den unitateetako bakoitza, tarifyan ezarritako baldintzen arabera.

Kuota**6. artikulua**

Kuota zehazteko, aurreko artikulua araberaz ateratzen den oinarriari aplikatuko zaio dagokion tarifa, eranskinean jasotako artetik.

Sortzapena**7. artikulua**

Zerbitzua eskaintzen den unetik bertatik sortzen da zorra eta, beraz, tasa ordaintzeko betebeharra.

Zerbitzua nahitaez eskaini behar denez gero, zergadunek erabili eta tasa ordaindu behar duten etxe eta lokalak dauden kale edo tokietan zaborra biltzeko udal zerbitzua ezarrita eta abian den unetik bertatik ordaindu beharko dute.

Arau hausteak eta zehapenak**8. artikulua**

Tasei buruzko arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagokion zigorraren kasuan ere, Arabako zergen foru arau orokorrak xedatutakoari jarraituko zaio.

1. Epigrafea: zaborra biltzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa

TARIFAK	
Etxebizitzak	105,46 euro
Merkataritza-lokalak	105,46 euro
Saltokiak	210,82 euro
Ostalaritza-kirolak-bestelakoak:	
Txokoak	295,26 euro
Tabernak, kafetegiak	295,26 euro
Sardexka 1eko jatetxeak.	506,30 euro
Jatetxeak 2 sardexka	632,52 euro
Ostatua-nekazalturismoa	259,30 euro
Hotela	259,30 euro
20 plaza arteko zaharren egoitza	259,30 euro
21 eta 40 plaza bitarteko zaharren egoitza	434,76 euro
40 plaza baino gehiagoko zaharren egoitza	610,14 euro
Kirol-eremua	873,50 euro
Gizarte-zentroak	187,52 euro

Industria (Goiango industrialdea izan ezik):	
500 metro karratu arte	233,24 euro
501 eta 1.000 metro karratu artean	853,58 euro
1.001 eta 3.000 metro karratu artean	1.308,16 euro
3.001 eta 10.000 metro karratu artean	1.962,34 euro
10.000 metro karratu baino gehiago	2.616,56 euro

Subjektu pasibo berari badagokio lokal berean zabor-bilketako zerbitzu publikoa emateagatik tasa edo tarifa bi edo gehiago ordaintzea, zenbateko handieneko tarifa baino ez da kobratuko.

2. Epigrafea: Udal hilerria

Ehorzketa	
KONTZEPTUA	TASA
Horma-hilobia alokatzea (10 urte)	100 euro
Luzapena (5 urte)	50 euro
Panteoia eraikitzeko lursaila	150 euro metro karratuko

II. ERANSKINA

Azterketa-eskubideengatiko tasa

1. artikulua. Lege-oinarria

Legutioko Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 23. eta 28. artikuluetan xedatutakoaren babesean, ordenantza fiskal honen bidez arautuko den azterketa-eskubideen tasa ezartzen du.

2. artikulua. Zergapeko egitatea

Honako hau da tasaren zergapeko egitatea:

- Honako hau da tasaren egitatea: Legutioko Udalak funtzionario edo langile lan-kontratadunen plaza hutsak jabetzan betetzeko deitzen dituen lehiaketa, oposizio eta lehiaketa-oposizio libre edo barne-sustapenekoetan hautagai gisa parte hartzeko eskabidea dela-eta egiten duen jarduera teknikoa edo administratiboa.
- Legutioko Udalak deitzen dituen eta lan-poltsak sortzen dituzten hautaketa-prozesuetara hautagai gisa aurkezteko eskaera, baldin eta zuzeneko deialdien bidez egiten badira eta gutxienez ariketa bat egitea badakarte.

3. artikulua. Sortzapena

Tasa aurreko artikuluan aipatzen diren hautaprobetan izena emateko eskabidea egiten den unean sortuko da, deialdian adierazten den moduan, eta ez dira izapidetuko ordainketa udal diruzaintzan sartu izanaren egiaztagiria aurkeztuta egiaztatzen ez duten eskabideak.

4. artikulua. Subjektu pasiboa

Tasaren subjektu pasiboak izango dira 2. artikuluan aipatzen diren hautaprobetan hautagai gisa izena ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

5. artikulua. Tributu-kuota

1.- Oposiziogile, lehiatzaile edo izangai bakoitzak ordaindu beharreko kuotak honako eskala honen arabera bete beharreko plazarik dagokion taldearen arabera zehaztuko dira:

TALDEA	ENPLEGU PUBLIKORAKO DEIALDIA	LAN-POLTSA EDO KONTRATAZIO-ZERRENDAK SORTZEA
A1	23,49 euro	14,28 euro
A2	19,58 euro	11,22 euro
C1	16,32 euro	8,16 euro
C2	12,24 euro	6,12 euro
Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren lanbide-taldeak (E)	6,12 euro	3,06 euro

2.- Hautaprobak deitzen dituzten xedapenetan berariaz adieraziko dira tasarengatik eska daitezkeen zenbatekoak.

6. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

1. Azterketa-eskubideen tasa ordaintzetik salbuetsita geratuko dira, eskabidea aurkezten den egunean:

- Gizarte Segurantzako araubide batean ere alta emanda ez egotea, edo, hala badagokio, jarduneko mutua profesional batean ere alta emanda ez egotea.
- Ehuneko 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa onartuta duten pertsonak, minusbaliatuen txandarako plazarik gordeta ez duten deialdietara aurkezten badira.

2. Tasa horren ordainketarako hobaria emango zaie eskabidea aurkezten den egunean:

- ALHAO edo Legutioko Udaleko iragarki-taulan hautaprobaren deialdia egin baino gutxienez hilabete lehenago enplegu-eskatzaille gisa agertzen badira, ehuneko 50eko murrizketa aplikatuko zaie aurreko tarifei.

Murrizketa hori aplikatzeko, subjektu pasiboak aurreko paragrafoan deskribatutako inguruabarrak egiaztatu beharko ditu, enplegu-zerbitzu publikoek emandako langabezia-ziurtagiria aurkeztuz.

- Eskabidea aurkezten den egunean kategoria orokorreko familia ugariko kide direla aitortuta dutenek tasa honen kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute.

7. artikulua. Likidazioa eta sarrera

Tasa autolikidazio-erregimenean eskatuko da, inskripzioa eskatzearekin batera.

Ordainketa eskabideak aurkezteko epearen barruan egin beharko da, eta udalak horretarako zehazten duen kontuan sartu beharko da. Dirua sartzeko agirian jaso beharko da. Agiri horren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira, nahitaez, interesdunaren izena eta lehiatzen den plazaren izena.

Azterketa-eskubideengatik tasa ordaindu izana justifikatzen ez bada, izangaia kanpoan geratuko da, salbu eta justifikazio-falta hori administrazioak egindako akats baten ondorioz gertatu bada.

AZKEN XEDAPENA

II. eranskina, azterketa-eskubideengatik tasa arautzen duenak, indarrean jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea onartu arte.

Legutio, 2024ko abenduaren 23a

Alkatea,

NEREA BENGOA GARCÍA DE CORTÁZAR